

1

DEMOGRAFIA

DEMOGRAFÍA

Marta Luxán Serrano (*)
Unai Martín Roncero (*)

(*) **Soziologia 2 saileko irakaslea. Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**
Profesores del Departamento de Sociología 2. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Universidad del País Vasco (UPV).

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
 2. UN SIGLO DE HISTORIA DEMOGRÁFICA CON REVOLUCIÓN INCLUIDA
 3. LA ESTRUCTURA POR SEXO Y EDAD: LA DEMOCRATIZACIÓN DE LA VEJEZ Y EL DESCENSO DE LA POBLACIÓN JOVEN
 4. NATALIDAD-FECUNDIDAD: LA CONSOLIDACIÓN DE SU AUMENTO Y SU PROGRESIVO RETRASO
 5. FAMILIAS, HOGARES Y FORMAS DE CONVIVENCIA: AUMENTAN LA HETEROGENEIDAD Y LAS FAMILIAS UNIPERSONALES, SE REDUCE EL TAMAÑO MEDIO
 6. LA FORMACIÓN DE LAS PAREJAS: AUMENTA LA IMPORTANCIA DE LOS MATRIMONIOS CIVILES Y DE LA COHABITACIÓN
 7. MORTALIDAD: MÁS AÑOS DE VIDA Y EN MEJOR CALIDAD PERO DESIGUALMENTE REPARTIDOS
 8. MOVIMIENTOS MIGRATORIOS: LA IMPORTANCIA DE LAS MIGRACIONES EXTRANJERAS
 9. CONCLUSIONES
- BIBLIOGRAFÍA

AURKIBIDEA

1. SARRERA
 2. MENDE BETEKO HISTORIA DEMOGRAFIKOA, IRAULTZA ETA GUZTI
 3. EGITURA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA: ZAHARTZAROA DEMOKRATIZATZEA ETA BIZTANLERIA GAZTEA MURRIZTEA
 4. JAIOTZAK-UGALKORTASUNA: HAREN GEHIKUNTZA FINKATU DA ETA GERO ETA BERANDUAGO GERTATZEN DA
 5. FAMILIAK, ETXEAK ETA BIZIKIDETZA MODUAK: HETEROGENEOTASUNA ETA PERTSONA BAKARREKO FAMILIAK UGARITU DIRA ETA BATEZ BESTEKO TAMAINA TXIKITU
 6. BIKOTEEN OSAERA: EZKONTZA ZIBILEN ETA ELKARREKIN BIZITZEAREN GARRANTZIAK GORA EGIN DU
 7. HERIOTZA-TASA: BIZITZA URTE GEHIAGO ETA KALITATE HOBEAN, BAINA MODU EZBERDINEAN BANATUAK
 8. MIGRAZIOAK: ATZERRIKO MIGRAZIOEN GARRANTZIA
 9. ONDORIOAK
- BIBLIOGRAFIA

1. INTRODUCCIÓN

El transcurso de esta primera década del nuevo milenio marca un cambio en las tendencias demográficas que ha experimentado la C.A. de Euskadi durante el último cuarto del siglo XX, estableciéndose unos nuevos patrones que podríamos interpretar como el hito que señala el inicio de una nueva época. Así, tras dos décadas marcadas por la pérdida de población y un crecimiento natural negativo, entre 2001 y 2010 ha aumentado la población, se han registrado más nacimientos que defunciones y el saldo migratorio ha sido positivo.

No obstante, y a pesar de que podría parecer que estamos en un momento óptimo para hacer balance y enfrentarnos a los retos del próximo milenio, nos encontramos sumidos en una crisis, económica pero también ecológica y de cuidados, que ya está teniendo secuelas en los movimientos migratorios y que, previsiblemente, vaya a incidir en la mortalidad y la natalidad. En efecto, los comportamientos demográficos son muy sensibles a la coyuntura, a la evolución socioeconómica, puesto que las personas, las parejas y los grupos sociales toman sus decisiones según el momento que están viviendo y las expectativas de futuro moldeadas tanto personal como colectivamente.

Por lo que a la evolución demográfica se refiere, el último cuarto del siglo anterior estuvo marcado por una importante reducción de la fecundidad y un aumento significativo de los efectivos de personas mayores, fruto de las ganancias en esperanza de vida. El nuevo siglo comienza con cierta recuperación de la fecundidad, acompañada por la llegada de contingentes de personas extranjeras, que si bien no son tan numerosas en la realidad como en el imaginario social, suponen un cambio cualitativo en la composición de nuestra sociedad; además, la existencia de una cada vez más numerosa población anciana nos enfrenta tanto a mayores niveles de dependencia como a eso que algunos autores y autoras denominan la crisis de los cuidados. Éstos, pues, son los miembros demográficos de los que disponemos para tejer y proyectar nuestra sociedad en tiempos de crisis.

En este capítulo, y tomando como referencia el apartado demográfico del Informe Socioeconómico de la C.A. de Euskadi 2006, abordamos la descripción y explicación de la evolución demográfica reciente, conscientes de que nos hallamos en los albores de una nueva etapa por lo que al comportamiento demográfico se refiere.

No podemos acabar esta introducción sin hacer referencia a Begoña Arregi y Maribel Larrañaga, puesto que nuestro trabajo es deudor tanto de su magisterio como de su dedicación a la demografía.

1. SARRERA

Milurteko berriaren lehen hamarkada honek aldaketa bat ekarri du Euskal AEk XX. mendearen azken laurdenean izan dituen joera demografikoetan. Hamarkada honetan patrio berriak finkatu dira, eta aro berri baten ikurra direlakoan gaude. Bi hamarkadaz biztanleria galdu eta hazkunde natural negatiboa izan ondoren, 2001 eta 2010. urteen artean biztanleria gehitu da, jaiotza gehiago egon da heriotza baino, eta migrazio-saldoa positiboa izan da.

Aitzitik, balantzea egiteko eta datorren milurtekoaren erronkei aurre egiteko une egokian gaudela ematen duen arren, krisi batean murgilduta gaude. Ez bakarrik ekonomikoa, baizik eta ekologikoa eta zaintzarena. Krisi hau migrazio-mugimenduetan eragina izaten ari da eta, ziurrenik, heriotza-tasan eta jaiotza-tasan ondorioak ekarriko ditu. Izan ere, portaera demografikoak oso sentikorrek dira abagunearen aurrean eta eboluzio sozioekonomikoaren aurrean, pertsonak, bikoteek eta gizarte taldeek erabakiak hartzen dituztenean bizi duten unea eta pertsonalki nahiz kolektiboki moldatutako etorkizun-espektatibak aintzat hartzen dituztelako.

Bilakaera demografikoari dagokionez, aurreko mendeko azken laurdenean ugalkortasuna nabarmen murriztu zen eta adineko pertsonen kopurua gehitu zen, bizi-itxaropena handitu egin zelako. Mende berriaren hasieran, ugalkortasuna zertxobait gehitu da, eta atzerriko pertsonak etorri dira. Atzerritarrek ez dira gizartearen iruditerian uste den bezainbeste, baina gure gizartearen osaeran aldaketa kualitatiboa dakarte. Gainera, adineko pertsona gero eta gehiago daukagunez, mendetasun mailak ere gora egin du, autore batzuek zaintzaren krisia deritzotenera iristeraino. Horiek dira, beraz, gure gizartea krisi garaian eraikitzeko eta proiektatzeko dauzkagun lehengaiak.

Kapitulu honetan, eta Euskal AEko 2006ko Txosten Sozioekonomikoaren atal demografikoa erreferentzia hartuta, bilakaera demografiko berriaren deskribapenari eta azalpenari helduko diegu, jakinik aro berri baten atarian gaudela joera demografikoari dagokionez.

Eta ezin sarrera hau bukatu Begoña Arregi eta Maribel Larrañaga aipatu gabe, gure lana haien irakaspenekin eta demografiari eskaini dioten lan eskergarekin zorretan baitago.

2. UN SIGLO DE HISTORIA DEMOGRÁFICA CON REVOLUCIÓN INCLUIDA

La población residente en un territorio es el más básico de los indicadores demográficos y un elemento imprescindible tanto para la planificación social y económica como para la toma de decisiones políticas. Veamos cuál ha sido la evolución de la población de la C.A. de Euskadi desde 1900 hasta nuestros días. En el año 1900 las personas residentes eran 603.596 y en 2010 se contabilizan 2.169.038, es decir, la población es hoy 3,6 veces mayor que a principios del siglo XX. Además, el ritmo de crecimiento no es constante, fluctúa. El siglo pasado comienza con tasas de crecimiento ligeramente superiores al 1 por ciento, a saber, se incrementa el número de habitantes, pero lentamente. A continuación, tras la posguerra, el ritmo se acelera y entre 1940 y 1970 se duplica la población: 1.878.636 personas, según el censo de 1970. Este aumento se produce de una manera más acusada en la década de 1960 y se debe tanto a un incremento de la natalidad como de los flujos migratorios. Entre 1970 y 1981 el crecimiento se suaviza debido a la reducción de los flujos migratorios pero sigue creciendo debido a que el aporte del crecimiento natural sigue siendo alto. A partir de 1981, la población vasca inicia una leve tendencia descendente a un ritmo del 0,45 por ciento anual, motivado por la salida de unas 95.000 personas más de las que entran a Euskadi, desajuste que no es compensado por el leve crecimiento natural positivo de la época –debido a una natalidad en descenso pero todavía mayor que la mortalidad–. En la década de los noventa, la tendencia decreciente se reduce, pero la población vasca sigue perdiendo efectivos. Cabe señalar que la razón principal de esta pérdida es que, por primera vez desde principios de siglo, el crecimiento natural es negativo; también el saldo migratorio, aunque pequeño, es negativo y el ritmo de pérdida es de un 0,1 por ciento anual. Por su parte, la primera década de este siglo supone un cambio de tendencia y la población vasca recupera su crecimiento debido, sobre todo, al aporte de las migraciones internacionales, pero también a que el crecimiento natural vuelve a ser positivo tras una leve recuperación de la natalidad. Esta recuperación de la tendencia al alza conlleva que el tamaño de la población vasca sea superior al de 1981.

Sin embargo, la evolución de la población no ha sido homogénea en todo el territorio, lo que ha llevado a cambios en el peso de las diferentes zonas geográficas. Álava no pierde población en el periodo 1981-2001 y, además, el aumento durante esta primera década del siglo XXI ha sido mayor que en el resto de Territorios Históricos. En cuanto a las comarcas, la Llanada Alavesa, las Estribaciones del Gorbea y Plentzia-Mungia son las que experimentan un mayor crecimiento. A un nivel municipal las diferencias también son notables. Así, en los municipios menos poblados –en los de menos de 10.000 habitantes y, en menor medida, en los de 10.000 a 20.000 habitantes– el descenso de la población en el periodo 1981-2001 es menor y mayor el crecimiento durante la primera década del siglo XXI. Las capitales, salvo Bilbao, también muestran crecimientos superiores a los registrados en los municipios intermedios, aunque el aumento es menor que en los pueblos de menor tamaño.

Esta evolución secular de la población ha conllevado a que si observásemos el Gráfico 1 a través de las lentes de la Transición Demográfica señalaríamos que nos encontramos en la fase pos transicional de la misma, es decir, que la transición ha concluido. Esta discutida teoría describe dicha fase como una situación de equilibrio relativo, de escaso crecimiento,

2. MENDE BETEKO HISTORIA DEMOGRAFIKOA, IRAULTZA ETA GUZTI

Lurralde batean bizi den pertsona kopurua adierazle demografikorik oinarritzkoenetako bat da. Ezinbesteko osagaia da gizarte eta ekonomi plangintzarako eta erabaki politikoak hartzeko. Ikus dezagun Euskal AEk zer-nolako bilakaera izan duen 1900. urtetik gaur egunera arte. 1900. urtean, Euskal AEn 603.596 bizilagun zeuden, eta 2010ean 2.169.038. Hau da, gaur egun 3,6 aldiz jende gehiago bizi da XX. mendearen hasieran baino. Gainera, hazkundearen erritmoa ez da jarraia, aldatzen da. Joan den mendearen hasieran hazkunde tasak % 1 baino apur bat handiagoak ziren; hau da, biztanle kopurua gehitzen ari zen, baina poliki. Gero, gerraren ondoren, erritmoa bizkortu zen eta 1940 eta 1970. urteen artean biztanleria bikoiztu zen: 1.878.636 pertsona, 1970eko erroldaren arabera. Gehikuntza hori nabarmenagoa izan zen 1960ko hamarkadan. Horren arrazoia jaiotza-tasaren gehikuntza eta migrazioak izan ziren. 1970 eta 1981. urteen artean, hazkuntza lasaitu zen, migrazioak baretu zirelako, baina hazten jarraitu zuen, hazkunde naturalaren ekarpena handia zelako oraindik ere. 1981. urtetik aurrera, euskal biztanleriak beheranzko joera txikia hasi zuen, urtean ehuneko 0,45eko erritmoan, Euskal AEn sartzen ari zirenak baino 95.000 pertsona gehiago irten zirelako. Beherakada hori ezin zuen konpentsatu orduko hazkuntza natural positibo txikiak (hazkuntza positibo horren arrazoia da jaiotza-tasa, gutxitzen ari zen arren, heriotza-tasa baino handiagoa zela). Laurogeita hamarrek hamarkadan, beheranzko joera murriztu zen baina euskal biztanleriak biztanleak galtzen jarraitzen zuen. Esan behar dugu galera honen arrazoi nagusia dela, mende hasieratik lehenbiziko aldiz, hazkunde naturala negatiboa zela. Migrazio-saldoa ere, txikia izan arren, negatiboa zen, eta galeraren erritmoa urtean ehuneko 0,1ekoa zen. Bestalde, mende honetako lehenengo hamarkadak joera aldatu zuen. Euskal biztanleria hazten ari zen berriro ere, batez ere nazioarteko migrazioen ekarpenari esker, baina gainera, hazkunde naturala positiboa zen berriro ere, jaiotza-tasa apur bat igo ondoren. Goranzko joera berreskuratze honek ekarri zuen euskal biztanleriaren tamaina 1981ekoa baino handiagoa izatea.

Aitzitik, biztanleriaren bilakaera ez da homogénea izan lurralde osoan. Horrek aldaketak ekarri ditu eremu geografiko batzuetatik besteetara. Arabak ez zuen biztanleriarik galdu 1981-2001 denboraldian eta, gainera, XXI. mendearen lehenengo hamarkada honetan izan duen igoera beste lurralde historikoetako baino handiagoa izan da. Eskualdez eskualde, Arabako Lautada, Gorbeia ingurua eta Plentzia-Mungia dira hazkunderik handiena izan dutenak. Udallerri batzuetatik besteetara ere alde nabarmenak daude. Horrela, biztanlerik gutxien duten udallerrietan (10.000 biztanletik behera dutenetan eta, neurri txikiagoan, 10.000 eta 20.000 biztanle artean dutenetan), 1981-2001 denboraldiko populazio gutxikuntza txikiagoa da, eta hazkunde handiagoa da XXI. mendearen lehenengo hamarkadan. Hiriburuetan, Bilbo izan ezik, bitarteko udallerrietan izandakoak baino hazkuntza handiagoak izan dira, baina hazkuntza txikiagoa da herri txikiagoetan baino.

Biztanleriaren bilakaera honen ondorioz, 1. grafikoa Trantsizio Demografikoaren betaurrekoekin ikusten badugu, konturatu gara trantsizioaren osteko fasean gaudela, hau da, trantsizioa bukatu dela. Teoria eztabaidatu honek fase hori oreka erlatibozko egoera gisa deskribatzen du, hazkunde txikiakoa, milako 10 baino heriotza eta jaiotza tasa txikiagoetan


basado en tasas de mortalidad y natalidad inferiores al 10 por mil. Se da cuenta así de la implantación de un nuevo régimen demográfico¹.

oinarritua. Horrela, erregimen demografiko berria ezarri dela esan dezakegu¹.

Evolución histórica de la población y de las tasas brutas de natalidad y mortalidad en la C.A. de Euskadi

1

Biztanleriaren eta jaiotza-tasa eta heriotza-tasa gordinen bilakaera historikoa Euskal AEn



Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Pero, ¿qué ha sucedido hasta entonces? El gráfico 1 refleja la intensidad y el calendario con que se sucede el declive de la natalidad y la mortalidad, procesos iniciados en el último tercio del siglo XIX como consecuencia de las grandes transformaciones sociales y vitales auspiciadas por la industrialización. No obstante, no se trata de un fenómeno unidireccional, sino que sufre oscilaciones, como el aumento del número de muertes durante la pandemia de gripe de 1918 o el incremento de las muertes y la disminución de los nacimientos durante la Guerra Civil y la posguerra. En efecto, el crecimiento registrado entre 1930 y 1950 (ver Tabla 1) es inferior al de las décadas anteriores.

Baina, zer gertatu da orduan? 1. grafikoak jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren gainbehera gertatzen diren intentsitatea eta egutegia islatzen ditu. Prozesu horiek XIX. mendearen azken herenean hasi ziren, industrializazioak gizartean eta bizimoduaren ekarri zituen eraldaketa handien ondorioz. Halere, hau ez da alde bakarreko fenomeno; gorabeherak izaten ditu, adibidez, 1918ko gripearen eraginez heriotza-tasak gora egin zuten, eta Gerra Zibilean eta gerra ostean heriotzak gehitu ziren eta jaiotzak gutxiagotu. Izan ere, 1930 eta 1950. urteen artean izandako hazkundea (ikus 1. taula) aurreko hamarkadetakoa baino txikiagoa da.

¹ No es este el momento de valorar los defectos y las virtudes de la más conocida de las teorías demográficas, pero sí de constatar que la evolución de la población de la C.A. de Euskadi durante los últimos años tiene más en común con las tendencias del siglo XIX que con lo sucedido en épocas más recientes. Efectivamente, con el inicio de la década de los ochenta se detiene el crecimiento de la población, alcanzándose una situación de relativa estabilidad, basada en tasas de natalidad y mortalidad bajas, situación comparable, por lo que al crecimiento se refiere, a la existente en el siglo XIX. Desde este punto de vista, podemos afirmar que hemos transitado de una situación de relativa estabilidad demográfica –con una cantidad importante de nacimientos y muertes– a otra también relativamente estable, en la que nace y muere poca gente, y en la que el crecimiento positivo está ligado a la llegada de personas inmigrantes.

¹ Ez da hau teoria demografikorik ezagunenaren akatsak eta bertuteak baloratzeko unea, baina esan behar dugu Euskal AEn biztanleriak azken urteetan bizi izan duen bilakaerak antz handiagoa duela XIX. mendeko joerekin, orain dela gutxiko gertaerekin baino. Hain zuzen ere, laurogeiko hamarkada hasi zenean biztanleriaren gehikuntza eten zen. Nolabaiteko egonkortasun egoera lortu zen, jaiotza eta heriotza tasa txikiakin. Egoera hori, hazkundeari dago-kionez, XIX. mendean zegoenaren parekoa da. Ikuspegi horretatik, esan dezakegu egonkortasun demografiko nahikoa izatetik (jaiotza eta heriotza askorekin) beste egoera egonkor batera iritsi garela, jende gutxi jaiota eta hiltzen denekoa, eta zeinetan hazkunde positiboa etorkinen iritsierara lotuta dagoen.

A partir de 1950 y, sobre todo, en la década de los sesenta y principios de los setenta, la tasa de natalidad aumenta, a la vez que disminuye la mortalidad. En relación con la primera, estamos en la época del *baby-boom*, años en que tanto la bonanza económica como los cambios en el calendario de la fecundidad de las generaciones tienen como corolario un importante aumento de los nacimientos. Por el contrario, en la década de los ochenta la fecundidad se contrae; es el tiempo del *baby-bust*, en el que se reducen las tasas de natalidad y el índice sintético de fecundidad llega a alcanzar cifras inferiores a la unidad. No será hasta 1996 cuando la natalidad comience, muy lentamente, a despuntar.

En cuanto a la mortalidad, sigue descendiendo hasta 1980, año a partir del cual empieza a ascender, muy discretamente y con oscilaciones, manteniéndose hasta nuestros días. Este incremento del número de muertes es debido al aumento de la proporción de personas de edad avanzada y, en todo caso, no debe percibirse como un fenómeno negativo, puesto que es consecuencia directa de mejoras en la esperanza de vida de la población. Aunque pueda resultar paradójico, este aumento del número de muertes está directamente relacionado con la generalización de una existencia más larga para el conjunto de la población.

Según algunos demógrafos, esta prolongación de la vida es el catalizador de la contracción de la fecundidad (Maccines y Pérez Díaz, 2008) y, añaden, que estamos ante una nueva situación demográfica que no se entiende porque se sigue analizando con herramientas analíticas del pasado (Pérez Díaz, 2010).

En palabras de Julio Pérez, «la humanidad está experimentando una revolución reproductiva que le permite, por primera vez en la historia, disminuir la fecundidad (...). Ello se debe a que los recién nacidos tienen por delante una vida mucho más larga que sus antepasados. Ambas novedades, la democratización de una vida larga y la consecuente posibilidad de una menor fecundidad, se traducen en una nueva estructura de la pirámide poblacional. Se trata de un cambio brusco, todavía en curso y sin precedentes en las civilizaciones anteriores. Sus consecuencias políticas, económicas y sociales son enormes» (Pérez Díaz, 2010: 34).

Hasta ahora únicamente nos hemos referido a los componentes del crecimiento vegetativo –natalidad y mortalidad– pero ¿cómo entender la evolución demográfica sin detenernos en el análisis de las migraciones? Como ilustra la Tabla 1, a excepción de la primera década y de los años ochenta y noventa del siglo XX, la C.A. de Euskadi es un territorio receptor de inmigración, destacando el volumen de las entradas entre 1950 y 1970. Se trata de las décadas que registran el mayor crecimiento del siglo, en las que el volumen de efectivos llegados vía inmigración iguala al aporte del crecimiento natural. No hace falta señalar que estas personas, en su mayoría procedentes del resto del Estado, acuden atraídas por las posibilidades de encontrar empleo en la industria. Entre 1970 y 1980, el saldo migratorio se reduce muy notablemente, para tornarse negativo a partir de 1980, acusando los efectos de la crisis industrial.

El siglo XXI comienza marcado por el impacto de las migraciones internacionales. En una reciente publicación, Xabier Aierdi señala que debemos aprovechar la llegada de estas personas para reinventar, juntas y en base a acuerdos, cómo queremos que sea el futuro de nuestro pueblo. Desde el punto de vista analítico afirma que no es conveniente esta-

1950eko hamarkadatik aurrera, eta batez ere hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, jaiotza-tasa gehitu zen eta heriotza-tasa gutxitu. Jaiotza-tasari dagokionean, *baby-boomaren* garaia da. Urte horietan, oparaldi ekonomikoak eta belaunaldien ugalkortasunaren egutegiaren aldaketak jaiotza kopurua asko gehitzea ekarri zuten. Laurogeiko hamarkadan, ordea, ugalkortasunak behera egin zuen. *Baby-bust* delakoaren garaia izan zen. Jaiotza-tasak murriztu ziren eta ugalkortasun-indize sintetikoa 1etik beherako zifretara iritsi zen. 1996. urtetik aurrera bakarrik hasi zen jaiotza-tasa, apurka-apurka, gora egiten.

Heriotza-tasari dagokionez, berriz, 1980. urtera arte jaisten jarraitu zuen. Urte horretatik aurrera, apur bat gehitzen hasi zen, gorabeherekin, eta hala mantendu da gaur egunera arte. Heriotza-kopuruaren gehikuntza hau adineko pertsonen proportzioak gora egin duelako gertatu da, eta edonola ere, ez da fenomeno negatibotzat jo behar, biztanleriaren bizi-itxaropenaren hobekuntzen zuzeneko ondorio baita. Paradoxa izan daitekeen arren, heriotza-kopuruaren gehikuntzak zuzeneko zerikusia dauka biztanleriak oro har bizialdi luzeagoa izatearekin.

Demografo batzuen arabera, bizitzaren luzapen hau ugalkortasuna murriztu duen katalizatzailea da (Maccines eta Pérez Díaz, 2008) eta, gaineratzen dute ulertzen ez dugun egoera demografiko berri baten aurrean gaudela, iraganeko tresna analitikoak erabiltzen jarraitzen dugulako (Pérez Díaz, 2010).

Julio Pérezen hitzetan, «gizateriak ugalketa-iraultza bizi du, eta horrek, historian estreinako aldiz, ugalkortasuna murriztea ahalbideratzen dio (...). Horren arrazoia da jaioberriek beren arbasoek baino bizitza askozaz ere luzeagoa biziko dutela. Bi egoera berri hauek, hau da, bizialdi luzea demokratizatzeak eta ondorioz ugalkortasun txikiagoa posible izateak, populazio-piramidean egitura berria izatea dakarte. Aldaketa bortitza da, oraindik amaitu ez dena eta aurreko zibilizazioetan aitzindariarik izan ez duena. Haren ondorio politiko, ekonomiko eta sozialak itzelak dira» (Pérez Díaz, 2010: 34).

Orain arte hazkunde begetatiboaren osagaiak bakarrik (jaiotza eta heriotza tasak alegia) aipatu ditugu. Baina nola ulertu bilakaera demografikoa migrazioak aztertu gabe? 1. taulak azaltzen duenez, XX. mendeko lehenengo hamarkadan eta laurogeiko eta laurogeita hamarrek hamarkadetan izan ezik, Euskal AE etorkinak hartzen dituen lurraldea izan da. 1950 eta 1970. urteen artean izandako etorkin kopurua bereziki aipagarria da. Hamarkada horietan izan da mende osoko hazkunderik handiena; inmigrazioz etorri diren pertsonen kopuruak hazkunde naturalaren emaitza berdindu zuen. Ez dago esan beharrik pertsona horiek, gehienak estatutik zetozenak, industrian lana aurkitzeko aukerengatik etorri zirela. 1970 eta 1980. urteen artean, migrazio-saldoa asko murriztu zen. 1980. urtetik aurrera negatiboa izan zen, industriaren krisiaren ondorioz.

XXI. mendearen hasieran, nazioarteko migrazioen eragina nabaritu zen. Argitalpen batean, Xabier Aierdik adierazi berri du pertsona horien etorrera profintatu behar dugula beraiekin batera, akordio bidez, berriro asmatzeko nolako etorkizuna nahi dugun gure herriarentzat. Ikuspegi analitikoetik adierazi du ez dela komenigarria migrazio horien eta beste garai ba-

blecer similitudes entre estas migraciones y las procedentes del Estado en otros tiempos (Aierdi, 2011).

Afrontamos pues el nuevo siglo con una población relativamente estable –que ha dejado de decrecer, con una fecundidad y una mortalidad muy bajas– con una estructura por edad del todo novedosa y en constante transformación, en la que la presencia de la población extranjera es cada vez mayor y está jugando un papel muy importante por lo que a las tareas de reproducción social se refiere. Y todo ello, en un contexto de crisis financiera, ecológica y de reproducción de la vida a escala planetaria. El reto no está exento de complicaciones.

tzuetan estatutik zetozenen artean antzekotasunik dagoela esatea (Aierdi, 2011).

Beraz, mende berriari biztanleria nahiko egonkorrekin egingo digu aurre, biztanleriak gutxitzeari utzi diolako, eta jaiotza eta heriotza tasak oso txikiak direlako. Adinaren araberako egitura guztiz berria da eta etengabe aldatzen ari da. Atzerritarren presentzia gero eta handiagoa da eta oso lan garrantzitsua egiten du ugalketa sozialeko lanei dagokienez. Eta hori guztia finantzen, ekologiaren eta biziaren ugalketaren krisi egoera batean, planeta osoko eskalan. Ez da erronka makala.

*Evolución demográfica e indicadores demográficos básicos en la C.A. de Euskadi**

1

Bilakaera demografikoa eta oinarritzko adierazle demografikoak Euskal AEn*

	Biztanleria Población (1)	Hazkundera Crecimiento (2)	r (%) r (%) (2)	Jaiotzak Nacidos (2)	JTG (%) TBN (%) (2)	Hildakoak Muertos (2)	HTG (%) TBM (%) (2)	Hazkunde naturala Crecimiento natural (2)	Migrazio-saldoa Saldo Migratorio (2)	MTG (%) TBSM (%) (2)	Gizonen BI EV hombres (3)	Emakumeen BI EV mujeres (3)	UIS ISF (4)
1900	603.596	70.192	1,09	213.966	33,5	142.430	22,3	71.536	-1.344	-0,2			
1910	673.788	92.987	1,29	213.764	29,7	140.630	19,5	73.134	19.853	2,8	46,4	48,7	
1920	766.775	124.935	1,51	229.790	27,7	130.753	15,8	99.037	25.898	3,1	49,4	52,8	
1930	891.710	64.054	0,69	183.027	19,8	130.243	14,1	52.784	11.270	1,2	46,4	58,2	3,49
1940	955.764	105.476	1,04	191.088	18,9	111.370	11,0	79.718	25.758	2,6	58,8	65,1	2,62
1950	1.061.240	310.414	2,56	262.783	21,6	104.595	8,6	158.188	152.226	12,5	64,9	70,0	2,55
1960	1.371.654	506.982	3,12	375.819	23,1	124.935	7,7	250.884	256.098	15,8	68,3	74,7	3,14
1970	1.878.636	263.173	1,31	410.700	20,4	158.642	7,9	252.058	11.115	0,6	69,9	77,3	2,86
1981	2.141.809	-37.768	-0,18	210.319	9,9	151.530	7,1	58.789	-96.557	-4,5	72,9	80,8	1,54
1991	2.104.041	-21.454	-0,1	161.407	7,7	174.738	8,3	-13.331	-8.123	-0,4	74,8	82,9	0,99
2001	2.082.587	86.451	0,45	177.238	9,3	170.940	8,0	6.298	80.153	4,2	77,6	85,0	1,15
2010	2.169.038												

* Biztanleria osoa, hazkundera: absolutua eta urteko tasa portzentajearen (r), jaiotzak: kopuru osoa eta urteko jaiotza-tasa gordina (JTG), heriotzak: kopuru osoa eta urteko heriotza-tasa gordina (HTG), hazkunde naturala guztira, migrazio-saldoa: kopuru osoa eta urteko migrazio-saldoaren tasa gordina (MTG), bizi-itxaropena (BI) gizon eta emakumeetan eta Ugalkortasun Indize Sintetikoa (UIS).

* Población total, crecimiento: absoluto y tasa anual en porcentaje (r), nacimientos: totales y tasa bruta de natalidad anual (TBN), defunciones: totales y tasa bruta de mortalidad anual (TBM), crecimiento natural total, saldo migratorio: total y tasa bruta de saldo migratorio anual (TBSM), esperanza de vida (EV) en hombres y mujeres e Índice Sintético de Fecundidad (ISF).

(1) Denboraldiaren hasieran; (2) Denboraldi osoan zehar; (3) Denboraldiaren erdialdean; (4) Denboraldiaren lehenengo bost urtekoan.

(1) Al inicio del periodo; (2) Durante el total del periodo; (3) A mitad de periodo; (4) Durante el primer quinquenio del periodo.

Iturria: Geuk egina, hauean oinarrituta: Arregi et al., 2006, Eustat eta Alustiza, 2009.

Fuente: Elaboración propia a partir de Arregi et al., 2006, Eustat y Alustiza, 2009.

3. LA ESTRUCTURA POR SEXO Y EDAD: LA DEMOCRATIZACIÓN DE LA VEJEZ Y EL DESCENSO DE LA POBLACIÓN JOVEN

«La estructura por sexo y edad es el resultado de la evolución demográfica de una población, a la vez que determina la incidencia de los fenómenos demográficos en el futuro. Imaginemos dos poblaciones con idénticas tasas específicas de natalidad y mortalidad, pero estructuras muy diferentes. El número de nacimientos y defunciones que tendrá lugar en cada una de ellas será muy diferente» (Luxán, 2010a).

Veamos, de forma resumida, cómo se ha transformado la estructura por edades de la población de la C.A. de Euskadi en los últimos treinta años: disminuye el peso de las y los menores de 20 años, aumenta la proporción de personas mayores de 64 años y, prácticamente, se mantiene el volumen de las edades centrales. Efectivamente, entre 1981 y 2010, la proporción de personas menores de 20 años ha pasado de ser el 25 por ciento de la población a no suponer más que el 17 por ciento, proporción similar a la que alcanza la población mayor de 64 años en 2010. Es decir, que en 2010 hay 180.934 personas menores de 20 años, 686.660 que tienen entre 20 y 65 años, y 241.703 que ya han celebrado su 65 aniversario.

3. EGITURA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA: ZAHARTZAROA DEMOKRATIZATZEA ETA BIZTANLERIA GAZTEA MURRIZTEA

«Sexuaren eta adinaren araberako egitura populazio baten bilakaera demografikoaren emaitza da. Aldi berean, fenomeno demografikoen eragina zehazten du etorkizunean. Jaiotza eta heriotza tasa espezifiko berdin-berdinak baina oso egitura ezberdinak dauzkaten bi populazio imajina ditzagun. Haietako bakoitzean izango diren jaiotza eta heriotza kopuruak oso ezberdinak izango dira» (Luxán, 2010a).

Ikus dezagun, laburbilduta, nola eraldatu den Euskal AEko adin egitura azken hogeita hamar urteetan: 20 urtetik beharkeoen pisua murriztu da, 64 urtetik gorako pertsonen proportzioa gehitu da eta erdiko adinetako bolumena mantendu da. Hain zuzen ere, 1981 eta 2010. urteen artean, 20 urtetik beharkeo pertsonen proportzioa populazioaren %25 izatetik %17 baino ez izatera igaro da. Proportzio hori 64 urtetik gorako populazioak 2010. urtean lortu duen proportzioaren antzekoa da. Hau da, 2010. urtean 20 urtetik beharkeo 180.934 pertsona daude, 20 eta 65 urte arteko 686.660 pertsona, eta 65 urte bete dituzten 241.703.

Estructura por edad y sexo en la C.A. de Euskadi

2

Bilakaera demografikoa eta oinarritzko adierazle demografikoak Euskal AEn

	1981		1991		2001		2010	
	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres
<20	375.592	356.650	275.870	261.329	193.731	183.666	192.174	180.934
20 - 64	608.363	603.910	652.353	649.488	677.925	673.701	694.038	686.660
>64	77.620	119.674	105.757	159.244	146.227	207.337	173.529	241.703
Guztira / Total	1.061.575	1.080.234	1.033.980	1.070.061	1.017.883	1.064.704	1.059.741	1.109.297
	Gizonak (%) Hombres (%)	Emakumeak (%) Mujeres (%)	Gizonak (%) Hombres (%)	Emakumeak (%) Mujeres (%)	Gizonak (%) Hombres (%)	Emakumeak (%) Mujeres (%)	Gizonak (%) Hombres (%)	Emakumeak (%) Mujeres (%)
<20	35,4	33,0	26,7	24,4	19,0	17,3	18,1	16,3
20 - 64	57,3	55,9	63,1	60,7	66,6	63,3	65,5	61,9
>64	7,3	11,1	10,2	14,9	14,4	19,5	16,4	21,8
Guztira / Total	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.


Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Pero no son los números lo único que ha cambiado. Como hemos señalado en otras ocasiones, el alargamiento de la vida ha supuesto la redefinición de las edades. Es decir, que la certeza tanto social como personal de que contamos con una vida longeva ha redundado en la transformación del modo en que estructuramos sus diferentes etapas. Por un lado, la juventud se ha alargado y, por otro, hoy en día no consideramos anciana a una persona de 65 años que goce de buena salud. Asimismo, tener 15 ó 70 años en la actualidad tiene muy poco que ver con lo que suponía alcanzar cada una de esas edades a principios del siglo XX. Y es en este contexto en el que surge el concepto de cuarta edad², puesto que en la actualidad entre una persona de 65 años y otra de 85 hay tantas diferencias como características comunes.

Ez baitira kopuruak aldatu den bakarra. Beste batzuetan ere esan dugunez, bizialdiak luzatzeak adinak birdefinitzea ekarri du. Hau da, bizitza luzea daukagulako ziurtasun sozial eta pertsonalak ekarri du bizitzaren aroak modu ezberdinetan kudeatzen ditugula. Batetik, gaztaroa luzatu da eta bestetik, 65 urte dituen eta osasun ona daukan pertsona bat ez dugu zahartzat hartzen. Era berean, gaur egun 15 edo 70 urte izateak zerikusi gutxi dauka XX. mendearen hasieran adin horiek izateak esan nahi zuenarekin. Izan ere, testuinguru honetan sortu da laugarren adinaren kontzeptua², gaur egun 65 urte dituen pertsona baten eta 85 urte dituen beste baten artean dagoen ezberdintasun kopurua ezaugarri komunaren kopuruaren antzekoa baita.

² Etapa vital referida a las personas de 80 y más años.

² 80 urtetik gorako bizi-aroa.



Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.

Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Detengámonos ahora en las pirámides de 1991 y 2010. De la comparación de sendos retratos demográficos cabe destacar las transformaciones acaecidas en la base, entre la población más joven. Así, la caída de la natalidad iniciada con el despegue de la década de los ochenta se mantiene hasta mediados de los años noventa. A partir de 1999 se aprecia un aumento del número de nacimientos que, aunque no de manera constante, perdura hasta 2009. Por otro lado, y como ya hemos señalado, se aprecia un aumento de la importancia numérica de las personas de más edad, mientras que la relevancia numérica de las generaciones nacidas durante el *baby-boom*, así como los aportes de jóvenes vía inmigración en las décadas de los cincuenta y los sesenta, siguen teniendo reflejo en unas edades centrales francamente voluminosas. Se distingue, así mismo, la hendidura de la guerra civil, ese hueco que tiene su origen en la reducción del número de nacimientos durante la contienda.

Erreparatu diezaiegun orain 1991ko eta 2010eko piramideei. Bi erretratu demografikoak alderatzen baditugu, oinarrian, hau da, gazteen artean, izandako aldaketak dira nabarientak. Horrela, laurogeiko hamarkadaren hasieran jaiotza-tasa gutxitzen hasi zen, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte. 1999. urtera arte jaiotza-kopuruak gora egin zuen, modu iraunkorrean ez bada ere, 2009. urtera arte iraun duena. Bestalde, arestian azaldu dugunez, pertsona zaharrenen kopurua garrantzitsuago bihurtu da. Era berean, *baby-boomean* jaio ziren belaunaldiek eta berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan etorri ziren etorkin gazteek isla izaten jarraitzen dute adin ertainetan, oso sektore handiak baitira. Era berean, gerra zibilaren hutsunea nabaritzen da, gerra garaian jaiotza-kopurua murriztu baitzen.


En este sentido, las pirámides de población no sólo nos informan sobre la estructura presente y pasada de una población sino que también anticipan una hipótesis sobre la futura estructura de edades. En este sentido, el Gráfico 4 muestra el enorme peso que las generaciones nacidas en el *baby-boom* han tenido en el conjunto de la población vasca y tendrán en el futuro. La planificación de diversos servicios (educación, sanidad, etc.), así como la estructura del mercado laboral han conocido en el pasado cercano el impacto del volumen de estas generaciones a medida que avanzaban en su ciclo vital. En un futuro no lejano, procesos del ciclo vital como su próxima salida del mercado laboral pueden suponer también importantes retos para la sociedad.

Zentzu honetan, biztanleriaren piramideek ez digute bakarrik azaltzen biztanleriaren oraingo eta iraganeko egitura, baizik eta adinen egituraren etorkizunari buruzko hipotesiak ere aurreratzen dituzte. Zentzu honetan, 4. grafikoak erakusten digu *baby-boom* belaunaldi hauek euskal biztanlerian izan duten eta etorkizunean izango duten pisu handia. Zerbitzuen plan-gintzak (hezkuntza, osasuna etab) eta lan-merkatuaren egitura iragan hurbilean belaunaldi hauen bolumenaren inpaktua erakutsi digute, beren bizi-zikloan aurrera egiten zuten bitartean. Etorkizun ez oso urrunean, bizi-zikloaren zenbait prozesu, lan-merkatura irteeta adibidez, gizartearentzat erronka garrantzitsuak ere izan daitezke.

Tamaño de la población por edad y periodo en la C.A. de Euskadi. Población real de 1981 y 2001 y escenario futuro a 2025 y 2050

4

Biztanleriaren tamaina Euskal AEn, adinaren eta denboraldiaren arabera. 1981eko eta 2001eko biztanleria erreala eta etorkizuneko egoera 2025ean eta 2050ean



* Biztanleriaren eskenatokiak bitarteko hipotesia kontuan izanik.

Escenarios de población considerando la hipótesis intermedia.

Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.

Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

La reducida base de la pirámide también nos plantea la existencia de un reto para la estructura social y económica futura. Concretamente, nos muestra la dificultad de reemplazo de las generaciones que en el futuro cercano abandonarán el mercado laboral. Si en 1981 por cada 10 personas de 60-64 años había 21 de 20 a 24 años, en 2001 ese número había descendido a 15 y en 2025 se estima que por cada 10 personas a punto de abandonar el mercado laboral, solamente haya 6 de 20 a 24 años para reemplazarlas. Estimaciones que, como tales, hay que considerarlas con cautela y que requieren un análisis en mayor profundidad incluyendo el estudio del impacto de la inactividad y el desempleo en los diferentes grupos de edad.

Piramidearen oinarri txikiak etorkizuneko egitura sozial eta ekonomikorako erronka bat dagoela erakusten digu. Zehazki, laster lan-merkatutik irtengo diren belaunaldiak ordezkatzeko zailtasuna erakusten digu. 1981ean 60-64 urteko 10 pertsona bakoitzeko 20-24 urteko 21 zeuden; azken kopuru hori 15era murriztu zen 2001ean, eta 2025ean uste dugu lan-merkatua uzteko zorian dauden 10 pertsona bakoitzeko 20 eta 24 urte arteko 6 bakarrik egongo direla haiek ordezkatzeko. Estimazio horiek kontu handiz hartu behar dira eta analisi sakonagoa behar dute. Aktibitate ezak eta langabeziak adin-talde bakoitzean izango duten eragina ere kontuan izan behar da.

En cuanto al sexo, se constata el impacto diferencial del mal llamado proceso de envejecimiento³ (ver Tabla 2), siendo la proporción de mujeres de 65 y más años notoriamente superior a la de hombres. No obstante, desde 1991 se aprecia una ligera tendencia al aumento de la proporción de efectivos masculinos, tendencia que, por otro lado, también se constata en el resto de grandes grupos de edad y que cabría relacionar con una disminución de las diferencias por lo que a la esperanza de vida se refiere.

Cabe destacar las dificultades económicas que atraviesa buena parte de las mujeres mayores, mujeres que viven solas, con ingresos en algunos casos por debajo del umbral de pobreza y escasez de otro tipo de recursos. Se trata de un sector de la población cada vez más numeroso al que, creemos, debe prestarse especial atención.

Podríamos concluir que los factores que han influido de forma decisiva en la transformación de la estructura por sexo y edad de la C.A. de Euskadi en los últimos treinta años son el aumento de la esperanza de vida –fruto del control de la mortalidad sobre todo en edades avanzadas– y la caída y posterior recuperación de la natalidad; además, si bien en menor medida y por lo que a la última década se refiere, cabe referirse a la incidencia de los aportes de la inmigración internacional.

Las consecuencias sociales de la democratización de la supervivencia han sido y son un tema recurrente tanto en ámbitos académicos como extraacadémicos. Julio Pérez Díaz (2010) señala como las más inmediatas la feminización de la vejez, el sobre-envejecimiento y una mayor dependencia derivada de la estrecha relación existente entre problemas de salud y edad.

Sexuari dagokionez, modu okerrean zahartze prozesua³ esaten zaionaren eragin diferentziala egiaztatzen da (ikusi 2. taula). 65 urtetik gorako emakumeen proportzioa gizonena baino askozaz ere handiagoa da. Halere, 1991. urtetik aurrera gizonen proportzioan gehikuntza txiki bat dagoela atzematzen da. Gehitzeko joera hori gainerako adin-talde handietan ere gertatzen da. Bizi-itxaropenean bi sexuen arteko aldea leundu delako gerta daiteke gehikuntza hori.

Adineko emakume askok dauzkaten zailtasun ekonomikoak aipatu behar ditugu: bakarrik bizi diren emakumeak, kasu batzuetan pobrezia mugatik beherako diru-sarrerekin eta bestelako baliabideetatik ere gutxi dauzkatenak. Biztanleriaren sektore hau gero eta ugariagoa da eta uste dugu arreta berezia zor diogula.

Amaitzeko, esan dezakegu azken hogeita hamar urteetan Euskal AEko sexuaren eta adinaren arabera egitura eraldatzean eragin erabakigarria izan duten faktoreak hauek dira: bizi-itxaropenaren gehikuntza (hilkortasunaren kontrolaren ondorioz, batez ere adineko pertsonen artean) eta ugalkortasunaren beherakada eta gero igoera. Gainera, azken hamarkadari dagokionez, neurri txikiagoan bada ere, nazioarteko inmigratioaren eragina kontuan hartzeko modukoa da.

Biziraupenaren demokratizazioaren ondorio sozialak sarritan aztertzen den gaia izan da eta izaten jarraitzen du, bai eremu akademikoan bai beste eremu batzuetan. Julio Pérez Díazen ustez (2010), garrantzitsuenak hauek dira: pertsona zahar gehienak emakumeak direla, gainzahartzea eta mendetasun handiagoa, adin eta osasun-arazoaren artean erlazio estua dagoelako.

Evolución de la relación de masculinidad por grandes grupos de edad. C.A. de Euskadi

3

Gizonen presentziaren bilakaera adin-talde handietan. Euskal AE

	1981	1991	2001	2010
<20	105,3	105,6	105,5	106,2
20 - 64	100,7	100,4	100,6	101,1
>64	64,9	66,4	70,5	71,8
Guztira/Total	98,3	96,6	95,6	95,5

Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Heriotza-tasaren beherakada eta bizi-itxaropenaren gehikuntza aztertzekeela azken hori biztanleria osoari aplikatu ezin izatea eta talde sozialen artean desberdintasun handiak ezkutatzea. Nazioarteko zenbait azterlanek (CSDH, 2008) eta Euskal AEkoek ere (Osasun Saila, 2005; Esnaola, 2006; Bacigalupe eta Martín, 2007) erakutsi dute osasunean ezberdintasun garrantzitsuak daudela, hau da, gizarte taldeen artean ezberdintasunak daudela osasun egoeran. Ezberdintasun horiek ekidingarriak eta bidegabeak dira. Osasunaren gizarte ezberdintasun hauek hilkortasun diferentzial argia dute posizio sozialaren aldagaien arabera.

Euskal AEren kasuan, heriotza-tasan eragin handien duten aldagaietako bat generoa da. Hau da, gizonen heriotza-tasa emakumeena baino handiagoa da adin guztietan (ikus 21. grafikoa), eta emaitza da 2008-2009 denboraldian jaiotzean dagoen bizi-itxaropenean emakumeen aldeko ia 7 urteko alde dagoela.

Autore batzuen arabera egoera honen arrazoia sexuen arteko ezberdintasun biologikoetan datza. Nolanahi ere, ezberdintasun horiek 2,5 urte inguruko aldea bakarrik azalduko lukete. Beraz, gainerako 4,5 urteentzat beste azalpen bat bilatu behar dugu, generoarekin zerikusia duten gizarte-egituraren dimentsioetan eta, zehazki, maskulinitasun-eredu hegemonikoan (Courtenay, 2000). Horren froga da kanpoko kausekin eta tabakoa edo alkohola bezalako ohiturekin zerikusia duten heriotzetan gehitzen direla ezberdintasun horiek. Era berean, adinaren arabera patroia argia dago: adin gazteetan (15-29) eta zaharretan (70-74) gizonezkoen tasak emakumezkoen hirukoitza dira. Gizonezkoen gehiegizko hilkortasunaren izaera sozialak aldaketak ekarri ditu denboran zehar eta, ziurrenik, aurrerantzean ekarriko ditu, haren euskarri diren kausa estrukturalak aldatzen diren heinean. Hala eta guztiz ere, frogatuta dago aldatu egin daitezkeela eta, horrenbestez, eremu honetan esku hartzea posible dela.

Beste alde batetik, gizonen eta emakumeen arteko bizi-itxaropenaren ezberdintasunak azken mendean aldatu egin dira (Alustiza, 2009). Adibidez, ikusi 1. taula, XX. mendearen hasieran erregistratu zen 3 urteko aldea gehitu egin da, etengabe, laurogeita hamarreko hamarkadara arte. Hamarkada horretan, emakumeen abantaila 8,5 urte ingurukoa da. Jakina, Gerra Zibilaren urteetan ezberdintasunak gehitu ziren, 11,7 urteetara iritsi arte. Halere, joera hau mendearen amaieran eten zen. 1998-1999 eta 2008-2009. urteen artean, bizirau-penaren ezberdintasunak urte erdi baino gehixeago murriztu ziren. Murrizpen horren azalpen nagusia da 15 eta 29 urte arteko taldearen heriotza-tasan ezberdintasunak murriztu direla. Talde horretan, esan dugunez, gizonezkoen gehiegizko heriotzen indize handienetako bat zegoen.



Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Pero las desigualdades de género en salud no solamente hacen referencia a una mayor mortalidad masculina. En muchas ocasiones se ha señalado que esa mayor supervivencia femenina va acompañada de un peor estado de salud en las mujeres. A pesar de que se haya relativizado este aspecto, destacando la necesidad de problematizar esa supuesta peor salud de las mujeres teniendo en cuenta las diferencias en su estado de salud según, por ejemplo, variables relacionadas con la distribución de los trabajos u otros ejes de desigualdad social, sí parece evidenciarse que, en términos generales, la salud de las mujeres es peor que la de los hombres a todas las edades. De esta forma, en el periodo 2004-2008, mientras que las mujeres esperan vivir 7,2 años de vida más que los hombres, las diferencias en el número de años en buena salud se reducen a 2,7 años. Como ilustra la Tabla 7, las mujeres esperan vivir más años en mala salud (4,5) y un menor porcentaje de su vida en buena salud (79,2 por ciento frente a 83,1 por ciento en el caso de los hombres).

Baina osasun gaietan generoen artean dauden ezberdintasunak ez dira bakarrik gizonen heriotza-tasa handiagoa dela. Sarritan esan izan da emakumeek, urte gehiago bizitzearekin batera, osasun egoera txarragoa daukatela. Alderdi hau erlatibizatu egin da, eta emakumeen uestezko osasun txarrago hori arazo bihurtu beharra nabarmendu da, haien osasun egoeran zenbait aldagai kontuan izanik, adibidez, lanen banaketari buruzkoak edo gizarte ezberdintasuneko beste ardatz batzuk. Halere, badirudi, oro har, emakumeen osasuna gizonena baino txarragoa dela adin guztietan. Horrela, 2004-2008 denboraldian, emakumeek gizonek baino 7,2 urte gehiago bizitzea espero zuten, baina osasun oneko bizialdiaren urte kopuruan 2,7 urteko aldea baino ez zegoen. 7. taulan ageri denez, emakumeak urte gehiago bizitzen dira osasun txarrean (4,5) eta bizitzaren portzentaje txikiagoa ematen dute osasun onarekin (ehuneko 79,2, eta gizoneko ehuneko 83,1).

Esperanza de vida (EV), esperanza de vida en buena salud (EVBS), esperanza de vida en mala salud (EVMS), y porcentaje de esperanza de vida que se espera vivir en buena salud (%EVBS) en la C.A. de Euskadi. 2004-2008

Bizi-itxaropena (BI), osasun onean bizitzeko itxaropena (OOBI), osasun txarrean bizitzeko itxaropena (OTBI), eta osasun onean bizitzea esperatzen bizi-itxaropenaren portzentajea (OOBI %) Euskal AEn. 2004-2008

	BI / EV	OOBI / EVBS	OTBI / EVMS	OOBI % / % EVBS
Gizonak / Hombres	78	64,8	13,2	83,1
Emakumeak / Mujeres	85,2	67,5	17,7	79,2
Aldea / Diferencia	7,2	2,7	4,5	-3,9

Iturria: Martin, 2011
Fuente: Martin, 2011


Además, el lugar de residencia también es una variable determinante por lo que a las desigualdades en la mortalidad se refiere. Así, en los mapas 1 y 2 se recogen las diferencias que existen por secciones censales. En el caso de las mujeres, el patrón geográfico de la mortalidad muestra una gran variabilidad con zonas de mayor mortalidad en áreas de Bizkaia (Gran Bilbao, Gernika-Bermeo, Duranguesado y Encartaciones), Gipuzkoa (Donostia, Tolosa, Urola-Costa y Alto Deba) y las tres capitales. En el caso de los hombres, las diferencias en la mortalidad de las secciones está más marcada y se detecta una mayor mortalidad en áreas de Bizkaia (principalmente la Margen Izquierda del Gran Bilbao, Encartaciones, la zona costera de Gernika-Bermeo, y el Duranguesado), en Gipuzkoa y en las tres capitales (Esnaola et al., 2010).

Gainera, bizilekua ere aldagai erabakigarria da heriotza-tasen arteko ezberdintasunei dagokienez. 1. eta 2. mapetan zentsuaren atalen arabera dauden aldeak jasotzen dira. Emakumeen kasuan, hilkortasunaren patroia geografikoa oso aldagarria da. Heriotza-tasa handiagoa da Bilbo Handian, Gernika-Bermeon, Durangaldean eta Enkarterrin (Bizkaian), Donostian, Tolosan, Urola Kostan eta Deba Beherean (Gipuzkoan), eta hiru hiriburuetan. Gizonen kasuan, bizilekuaren arabera hilkortasunean dagoen alde nabarmenagoa da. Hilkortasuna handiagoa da Bilbo Handiaren ezker aldean, Enkarterrin, Gernika-Bermeoko kostaldean eta Durangaldean (Bizkaian), Gipuzkoan eta hiru hiriburuetan (Esnaola et al., 2010).

Razón de Mortalidad Estandarizada por todas las causas en mujeres por zona de residencia en la C.A. de Euskadi. 1996-2003

1

Emakumeen heriotza-tasa estandarizatu, kausa guztietan, bizilekuaren arabera, Euskal AEn. 1996-2003



Iturria: Esnaola et al., 2010.
Fuente: Esnaola et al., 2010.


Estas diferencias se mantienen aunque tomemos como referencia áreas geográficas mayores. Considerando, por ejemplo, las zonas básicas de salud –que comprenden ámbitos geográficos de unos 20.000 habitantes– la diferencia en la esperanza de vida entre las zonas de mayor y menor longevidad en el periodo 2001-2005 es de 9,6 años en hombres y de 5,6 en mujeres. La zona básica de menor esperanza de vida es Bilbao La Vieja tanto en hombres como en mujeres, mientras que la de mayor esperanza de vida varía según el sexo, pero en ambos casos se trata de zonas de Álava (Calvo et al., 2009). Estas desigualdades en la mortalidad según el área de residencia se explican, en gran parte, por las diversas características socioeconómicas de las zonas (Esnaola et al., 2006; 2010; Martín, 2011).

Ezberdintasun hauek eremu geografiko handiagoetan ere mantentzen dira. Adibidez, oinarrizko osasun-eremuak kontuan izanez gero (hau da, 20.000 biztanle inguruko eremu geografikoak aztertuz gero), jendea urte gehiago eta gutxiago bizi den eremuen bizi-itxaropenen arteko aldea, 2001-2005 denboraldian, 9,6 urtekoa da gizonetan eta 5,6 urtekoa emakumeetan. Bizi-itxaropenik gutxien dagoen oinarrizko zona Bilbo Zaharra da, bai gizonetan, bai emakumeetan, eta bizi-itxaropenik handiena sexuaren arabera aldatzen da, baina bi kasuetan Arabako zonak dira (Calvo et al., 2009). Bizilekuaren arabera heriotza-tasan dauden ezberdintasun hauek, neurri handi batean, zonen zenbait ezaugarri sozioekonomikoren arabera azaltzen dira (Esnaola et al., 2006; 2010; Martín, 2011).

Razón de Mortalidad Estandarizada por todas las causas en hombres por zona de residencia en la C.A. de Euskadi. 1996-2003

2

Gizonen heriotza-tasa estandarizatua, kausa guztietan, bizilekuaren arabera, Euskal AEn. 1996-2003




Iturria: Esnaola et al., 2010.
Fuente: Esnaola et al., 2010.

Esperanza de vida (total barra), esperanza de vida en buena salud (EVBS), esperanza de vida en mala salud (EVMS) a los 20 años según nivel de estudios y sexo en la C.A. de Euskadi. 1996-2001

22

Bizi-itxaropena (barra osoa), osasun onean bizitzeko itxaropena (OOBI), osasun txarrean bizitzeko itxaropena (OTBI) 20 urte izatean, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera, Euskal AEn. 1996-2001



Iturria: Martín, 2011, EAEolan eta Osasun Sailean oinarrituta, 2005.
Fuente: Martín, 2011 a partir de ESCAV y Departamento de Sanidad, 2005.

Por último, conviene recordar que las variables de posición social individuales como el nivel de estudios, la clase social o la ocupación también suponen un riesgo diferencial de enfermar y de morir. En efecto, el nivel de estudios ha demostrado ser un importante determinante de la mortalidad (Departamento de Sanidad, 2005). En el periodo de 1996-2001, mientras que un hombre de nivel de estudios primarios o inferior espera vivir a los 20 años 56,4 años y una mujer 64,7, la esperanza de vida de un hombre de 20 años con nivel de estudios superior es de 59,5 años y la de una mujer de 66,3. Las desigualdades son todavía mayores si consideramos no solamente la mortalidad, sino también la salud. A medida que se desciende en la escala social, las personas no solamente viven, en términos generales, menos años, sino que viven también menos años en buena salud, un mayor número de años en mala salud y un porcentaje de su vida mayor en un estado de salud deficiente. En el Gráfico 22 podemos constatar que tener un nivel de estudios primario o inferior supone vivir 11 años menos en buena salud en los hombres y 9 en las mujeres.

Azkenik, gogora ekarri behar dugu norbanakoaren posizio sozialaren aldagaiek, hala nola ikasketa-maila, klase soziala edo lanbidea, ezberdintasunak ekarri ahal dituztela erikortasun eta hilkortasunean. Adibidez, ikasketa-maila heriotza-tasaren baldintzatzaile garrantzitsua dela frogatu da (Osasun Saila, 2005). 1996-2001 denboraldian, lehen mailako ikasketak edo gutxiago zituen gizon batek, 20 urte zituenean, 56,4 urteko bizi-itxaropena zeukan, eta emakume batek 64,7 urtekoa. Berriz, goi-mailako ikasketak zituen gizon batek, 20 urte zituenean, 59,5 urteko bizi-itxaropena zeukan, eta emakumeak, 66,3 urtekoa. Ezberdintasunak are handiagoak dira heriotza-tasa ez ezik osasuna kontuan izaten badugu. Eskala sozialean behera egin ahala, pertsonak ez dira bakarrik (oro har) urte gutxiago bizi, baizik eta osasun onean urte gutxiago bizi dira, urte gehiago bizi dira osasun txarrean, eta haien bizitzeko portzentaje handiago bat ematen dute osasun egoera txarrean. 22. grafikoan ikus dezakegu lehen mailako ikasketak edo gutxiago izanez gero, 11 urte gutxiago bizitzen dira osasun onean, gizonen kasuan, eta 9 urte gutxiago, emakumeen kasuan.

8. MOVIMIENTOS MIGRATORIOS: LA IMPORTANCIA DE LAS MIGRACIONES EXTRANJERAS


Los movimientos migratorios constituyen otro de los elementos importantes en la estructura y dinámica de una población hasta el punto de que han pasado a ser el principal determinante de su crecimiento de las poblaciones occidentales. En la actualidad, además, su relevancia es creciente debido a las implicaciones sociales y económicas de los nuevos flujos migratorios internacionales. Sin embargo, los flujos migratorios no son nuevos, ni en la C.A. de Euskadi ni en el resto de poblaciones, y han sido ya protagonistas de las principales transformaciones sociales y demográficas del siglo. Además de las migraciones de ultramar, uno de los procesos migratorios más importantes en la sociedad vasca fueron las migraciones provenientes de otras partes del Estado durante las décadas de los cincuenta y los sesenta y también en la primera parte de los años setenta. Durante esos años la población vasca dobla su tamaño en gran parte debido al aporte de esos flujos, tanto en forma de efectivos de población como por el impacto que la llegada de esas personas en edad reproductiva tuvo en la natalidad vasca. Tras el periodo de la llegada masiva de población, el signo del saldo migratorio se torna negativo, pasando la sociedad vasca de ser una sociedad receptora de población a expulsar población. Esto sucede principalmente durante la década de los ochenta y, en menor medida, durante los años noventa.

El saldo migratorio mantiene una tendencia negativa hasta el año 2000, cuando el flujo de migraciones proveniente del extranjero consigue compensar la pérdida de población derivada de las emigraciones. A partir del año 2000, el número de inmigrantes crece en mayor medida que el número de emigrantes y el saldo migratorio mantiene una tendencia al alza hasta el año 2008, en el que el número de personas que llegan a la C.A. de Euskadi disminuye notablemente respecto al año anterior. En 2009 esta tendencia de descenso se agrava y el saldo migratorio desciende nuevamente aunque se mantiene en números positivos.

8. MIGRAZIOAK: ATZERRIKO MIGRAZIOEN GARRANTZIA

Migrazioak beste elementu garrantzitsu bat dira populazio baten egituran eta dinamikan; are gehiago, mendebaldeko populazioetan hazkundearen baldintzatzaile nagusia izatera igaro dira. Gaur egun, gainera, haren garrantzia gero eta handiagoa da, nazioarteko migrazio-fluxu berrien ondorio sozial eta ekonomikoak direla-eta. Aitzitik, migrazio-fluxuak ez dira berriak Euskal AEn ezta gainerako leketan ere, eta mendeko eraldaketa sozial eta demografikorik esanguratsuenen protagonista izan dira. Beste kontinenteetara egindako migrazioez gain, euskal gizartean izan den migrazio-prozesurik garrantzitsuenetako bat estatutik etorritako migrazioak izan dira, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan eta hirurogeita hamarreko hamarkadako lehenengo urteetan. Urte horietan, euskal biztanleriak bere tamaina bikoiztu zuen, neurri handi batean fluxu horien ekarpenaren ondorioz, bai etorri ziren pertsonen bidez, bai ugaltzeko adinean zeuden pertsona horien etorrerak euskal jaiotza-tasan izan zuen eraginaren bidez. Jende-uholdea etorri zen garai hura bukatutakoan, migrazio-saldoaren zeinua negatibo bihurtu zen. Euskal gizartea jendea hartzen zuen gizartea izatetik jendea kanpora bultzatzera igaro zen. Hori batez ere laurogeiko hamarkadan jazo zen eta, neurri txikiagoan, laurogeita hamarreko hamarkadan.

Migrazio-saldoak joera negatiboa izan zuen 2000. urtera arte. Orduan, atzeritik zetorren migrazio-fluxuak emigrazioek sorrarazi zuten biztanleria-galera konpentsatzea lortu zuen. 2000. urtetik aurrera, etorkin kopurua emigranteena baino azkarrago gehitu zen, eta migrazio-saldoak goranzko joera izan zuen, 2008. urtera arte. Urte hartan, Euskal AEra etorri zen pertsona kopurua aurreko urtekoa baino askozaz ere txikiagoa izan zen. 2009. urtean, beheranzko joera hori larritu zen eta migrazio-saldoa berriro murriztu zen, baina oraindik ere kopuru positiboetan.




Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

Atendiendo al lugar de nacimiento de las personas que salen y entran en la C.A. de Euskadi, podemos observar que son las personas de origen extranjero las que con su entrada determinan el cambio en el saldo migratorio, tanto por su crecimiento a partir del año 2000, como con su decrecimiento en el año 2008 y 2009.

Los movimientos de personas nacidas en la C.A. de Euskadi y en el resto del Estado, sin embargo, mantienen una tendencia estable. En este sentido cabe destacar que la actual crisis económica no ha supuesto una salida de individuos de la Comunidad Autónoma hacia otros lugares, sino que únicamente se observa un pequeño repunte en este sentido, que comienza ya en 2006, de personas nacidas en el extranjero, lo que puede interpretarse como un proceso de retorno.

Euskal AEn sartzen eta irteten diren pertsonen jaioterria kontuan izaten badugu, ikusiko dugu atzerriko pertsonak, Euskal AEn sartzean, erabakitzen dutela migrazio-saldoa, bai 2000. urtetik aurrera izan duen gehikuntzaren ondorioz, bai 2008 eta 2009. urteetan izan duten gutxikuntzaren ondorioz.

Euskal AEn eta estatuan jaiotako pertsonen mugimenduen joera, berriz, egonkorra da. Zentzu horretan, esanguratsua da gaur egungo krisi ekonomikoa ez duela ekarri autonomi erdiko honetatik jendea beste leku batzuetara joatea; atzerrian jaiotako pertsonak, ordea, gehiago joaten ari dira, baina joera hau 2006. urtean hasi zen, eta krisialdian azkartu. Joera hori jaioterrira itzultzeko prozesua izan daiteke.



Iturria: Geuk egina, Eustaten oinarrituta.
 Fuente: Elaboración propia a partir de Eustat.

9. CONCLUSIONES

Tal y como señalábamos al inicio del capítulo, la primera década del siglo XXI es testigo de algunas transformaciones en la evolución demográfica de la C.A. de Euskadi, así como de la continuidad de ciertas tendencias.

En efecto, tras dos décadas marcadas por la sistemática pérdida de población, la dinámica poblacional de Euskadi cambia su tendencia y entre 2001 y 2010 el crecimiento es positivo. Aunque la mayor parte del mismo tenga su origen en la llegada de importantes contingentes de población extranjera, se registra cierta recuperación de la natalidad, resultando mayor el número de nacimientos que el de muertes.

Por otro lado, tanto la esperanza de vida como la esperanza de vida en salud siguen aumentando, siendo cada vez mayor la proporción de personas mayores de 64 años que residen en nuestra Comunidad. Es previsible que esta tendencia se mantenga y se acentúe en los próximos tiempos, a medida en que las generaciones nacidas durante el *baby-boom* vayan cumpliendo años.

Ya nos hemos referido a la teoría de la revolución reproductiva, explicación que conecta el alargamiento de la vida y la democratización de la vejez con la disminución de la fecundidad. Los autores de esta teoría señalan que, efectivamente, el sistema demográfico es en la actualidad mucho más eficiente que en el pasado y que, por tanto, necesita de un menor número de nacimientos para asegurar su continuidad. Además, este proceso tiene otras consecuencias, como ahora son la coexistencia de un mayor número de generaciones en las familias, el ordenamiento de la mortalidad de las mismas (cada vez es más difícil que una madre vea morir a su hija) y la redefinición de las edades, muy marcada por el alargamiento de la juventud y el retraso de la ancianidad.

Otra cuestión relacionada con este proceso es el aumento de la importancia de los hogares unipersonales, conformados en su mayoría por mujeres de edades avanzadas. Destaca también la pérdida de importancia relativa de los hogares nucleares con hijas e hijos y, en general, el aumento de la heterogeneidad de las formas de convivencia, a la vez que la disminución del tamaño medio familiar.

En cuanto la formación de la pareja, aumenta la edad media al matrimonio y durante la última década se registra una cierta recuperación de la nupcialidad, así como una tendencia al alza de los matrimonios civiles que, desde 2007, son más numerosos que los religiosos. No podemos dejar de referirnos al reconocimiento del derecho al matrimonio entre personas del mismo sexo ya que, aunque no se trate de un fenómeno cuantitativamente muy numeroso, cualitativamente creemos que tiene una gran relevancia social y que refleja una apertura en la manera de concebir qué son las familias. Asimismo, la cohabitación es un fenómeno cada vez más extendido, como demuestra la proporción de nacimientos de madre no casada, y es otro de los elementos en los que nos apoyamos para afirmar que, si bien socialmente las familias siguen siendo muy importantes, cada vez son más plurales.

Por lo que a la fecundidad se refiere, después de la contracción experimentada durante las décadas de los ochenta y los noventa, con el nuevo siglo conoce una cierta recuperación, debida en buena parte al aumento del número de nacimientos entre las mujeres mayores de 30 años. En todo caso, y aun-

9. ONDORIOAK

Kapituluaeren hasieran esan dugunez, XXI. mendearen lehen-biziko hamarkadan Euskal AERen bilakaera demografikoan zenbait eraldaketa gertatu dira, eta beste joera batzuk, berriz, bere horretan gelditu dira.

Hain zuzen ere, bi hamarkadaz populazioa sistematikoki galdu eta gero, Euskadiren biztanleria-dinamikak joera aldatu zuen eta, 2001 eta 2010. urteen artean, hazkuntza positiboa izan zen. Hazkuntzaren zatirik handienaren jatorria atzeritar asko etortzea izan zen, baina jaiotza-tasa ere nolabait suspertu zen, jaiotza-kopurua heriotzera baino handiagoa zelako.

Bestalde, bizi-itxaropena eta osasun onarekin bizitzeko itxaropena gehitzen ari dira oraindik. Gero eta 64 urtetik gorako pertsona gehiago bizi dira, proportzioan, gure erkidegoan. Joera hau datozen urteetan mantendu eta areagotuko dela aurreikusten da, *baby-boomean* jaiotako belaunaldiak zahar-tzen diren heinean.

Ugalketa-iraultzaren teoriak hitz egin dugu jada. Azalpen horrek bizitzaren luzapena eta zahartzaroaren demokratizazioa ugalkortasunaren murrizpenarekin lotzen ditu. Teoria honen asmatzaileek uste dute sistema demografikoa, gaur egun, iraganean baino eraginkorragoa dela eta, horrenbestez, jaiotza-kopuru txikiagoa behar dela jarraipena bermatzeko. Gainera, prozesu honek bestelako ondorioak dauzka, adibidez, familietan belaunaldi gehiago bizi dira aldi berean, heriotza ordenatzen ari da (adibidez, gero eta zailagoa da ama bat bere alaba baino beranduago hiltzea) eta adinak birdefinitzen ari dira, gaztaroaren luzapenaren eta zahartzaroaren atzerapenaren ondorioz.

Prozesu honekin zerikusia duen beste kontu bat pertsona bakarreko familien garrantzia areagotu dela da. Honelako familiek batez ere adineko emakumeek osatzen dituzte. Gainera, seme-alabak dauzkaten familia nuklearrek garrantzi erlatiboa galdu dute. Oro har, bizikidetzaren moduen heterogeneotasuna gehitu da, eta familien batez besteko tamaina jaitsi egin da.

Bikoteen osaerari dagokionez, ezkontzeko batez besteko adina gehitu da, eta azken hamarkadan ezkontzeko joera nolabait suspertu da. Gainera, ezkontza zibilak ere areagotu dira, 2007. urtetik aurrera erlijiosoak baino ugariagoak izanik. Sexu bereko pertsonak ezkontzeko eskubidea aipatu beharrean gaude. Fenomeno hau, kopuruen aldetik, ez da oso garrantzitsua, baina uste dugu kualitatiboki garrantzi handia duela gizartean, eta familia zer den ulertzeko moduan jarrera irekiagoa islatzen duela. Gainera, bizikidetzaren gero eta ohikoagoa da. Hala erakusten du ama ezkongabeen jaiotzak gero eta ugariagoak izateak. Bizikidetzak, beste elementu batzuekin batera, erakusten digu familiek oraindik gizarte aldetik garrantzitsuak diren arren gero eta pluralagoak direla.

Ugalkortasunari dagokionez, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan izandako kontrakzioaren ondoren, mende berriarekin ugalkortasuna apur bat suspertu da, neurri handi batean 30 urtetik gorako emakumeen jaiotzak ugartu direlako. Nolanahi ere, suspertze hau orden guztietan gerta-

que la recuperación incida en todos los rangos, sobre todo aumentan los primeros nacimientos, es decir, que disminuye el número de mujeres, y hombres, sin descendencia. También es reseñable la contribución a la natalidad de las personas extranjeras, si bien la tendencia al alza afecta también a las autóctonas.

Nos hemos referido ya al aumento de la esperanza de vida y la esperanza de vida en salud, pero no a la importancia de las diferencias existentes entre diferentes grupos sociales, diferencias que tienen un claro reflejo en los ratios de mortalidad por zonas de residencia o nivel de educación.

Pero no es la mortalidad el único fenómeno heterogéneo por lo que al territorio se refiere. También el crecimiento y la estructura por edad conocen situaciones dispares, al igual que la cantidad y las características de las personas que migran varían según las zonas. En todo caso, y por lo que a la inmigración se refiere, destaca el aumento de la llegada de efectivos extranjeros, sobre todo entre 2005 y 2008.

En resumen, nos encontramos con una dinámica poblacional caracterizada por una situación de muy baja fecundidad, con una estructura por edad en que las personas mayores son cada vez más numerosas y en la que la presencia de personas extranjeras se ha incrementado de manera importante en los últimos tiempos. Vivimos en una de las sociedades más longevas del mundo y éste es, precisamente, uno de los logros sociales más importantes del siglo XX. Pero el mal llamado envejecimiento demográfico se presenta demasiadas veces como un problema, subrayando el aumento de la carga económica y de cuidados que supone y dejando de lado las aportaciones que el colectivo de mayor edad hace a nuestra sociedad. Una gestión adecuada de esta situación, así como de los retos que plantean los nuevos movimientos migratorios, es la clave para una buena gestión de la vida en nuestra comunidad.

tzen den arren, lehenengo jaiotzak dira gehien ugaritu direnak, hau da, seme-alabarik gabeko emakume eta gizon kopurua murriztu da. Aipagarria da, halaber, atzerritarrek ugalkortasunari egin dioten ekarpena. Halere, aipatu dugun goranzko joera hori bertoko pertsoneri ere eragiten die.

Bizi-itxaropenaren eta osasunean bizitzeko itxaropenaren gehikuntzaz jardun dugu jada, baina ez ditugu aipatu gizarte taldeen artean dauden ezberdintasunak. Ezberdintasun horiek argi eta garbi ikusten dira bizilekuaren arabera edo ikasketa-mailaren arabera heriotza-tasen ratioetan.

Baina heriotza-tasa ez da fenomeno heterogeneo bakarra lurraldeari dagokionez. Hazkundeak eta adinaren arabera egiturak ere egoera ezberdinak dituzte; era berean, migratzen duten pertsonen kopurua eta ezaugarriak zonaren arabera aldatzen dira. Nolanahi ere, inmigrazioari dagokionez, etorkinen iritsiera nabarmendu beharrekoa da, batez ere 2005 eta 2008. urteen artean.

Laburbilduz, biztanleriaren dinamikaren ezaugarria da ugalkortasun oso txikia duela. Adinaren arabera egituraren, adineko pertsonak gero eta ugariagoak dira, eta atzerritarren presentzia oso modu garrantzitsuan areagotu da azken aspaldian. Munduko gizarterik adintsuenetako batean bizi gara eta horixe da, hain zuzen ere, XX. mendeko lorpen sozialik handienetako bat. Baina zahartze demografikoa (gure ustez izendapen okerra dena) deitzen dioten hori sarri askotan arazotzat jotzen da. Zahartze horrek dakartzan zama ekonomikoa eta zaintza-premia nabarmendu ohi dira, eta zaharrenek gure gizartean egiten duten ekarpena alboratu. Egoera honen eta migrazio-mugimenduek aurkezten dituzten erronken kudeaketa egokia funtsezkoa da gure erkidegoan bizitza behar bezala kudeatzeko.

BIBLIOGRAFÍA

- AIERDI, X. (2011). «Inmigrazioa Euskal Herrian». *Gaindegia Txostena 2010*. Donostia: Gaindegia. 41-48.
- ALUSTIZA, A. (2009). Longevidad, discapacidad y dependencia en la C.A. de Euskadi: una aproximación demográfica [Tesis Doctoral]. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- ARREGI, B.; LARRAÑAGA, I.; MARTÍN, U. (2007). «Demografía». *Informe Eustat 2006*.
- BACIGALUPE, A.; MARTÍN, U. (2007). Desigualdades sociales en la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco: la clase social y el género como determinantes de la salud. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.
- CALVO, M.; ESNAOLA, S.; AUDICANA, C.; RUIZ, R.; ALDASORO, E.; MONTOYA, I.; IBÁÑEZ, B. (2009). Distribución geográfica de la esperanza de vida por zonas básicas de salud en el País Vasco (proyecto Medea). Comunicación presentada en la XXVII Reunión de la Sociedad Española de Epidemiología. Zaragoza octubre de 2009.
- COURTENAY, WH. (2000). Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health. *Social Science and Medicine*. 50(10): 1385-1401.
- DEPARTAMENTO DE SANIDAD (2005). Desigualdades sociales en la mortalidad: Mortalidad y posición socioeconómica en la C.A. de Euskadi, 1996-2001. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ESNAOLA, S.; MONTOYA, I.; CALVO, M.; ALDASORO, E.; AUDICANA, C.; RUIZ, R.; IBÁÑEZ, B. Atlas de mortalidad en áreas pequeñas de la C.A. de Euskadi (1996-2003). Vitoria-Gasteiz: Departamento de Sanidad y Consumo, 2010.
- ESNAOLA, S.; ALDASORO, E.; RUIZ, R.; AUDICANA, C.; PÉREZ, Y.; CALVO, M. (2006). «Desigualdades socioeconómicas en la mortalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco». *Gaceta Sanitaria*, 20(1): 16-24.
- EUSTAT (2008). Panorama Demográfico 2008. Informe. EUSTAT. Vitoria-Gasteiz.
- (2010). Euskadi en la UE-27. 27 Indicadores básicos para conocer la situación de nuestro país en la Unión Europea. EUSTAT. Vitoria-Gasteiz
- IMAZ, E. (2006). «Haurra eduki ala ez: ugalketaren inguruko planteamenduak, desirak eta kontraesanak», ALONSO-ARBIOL (coord.) *Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 95-105
- LUXÁN, M. (2004). «Evolución demográfica y movimientos migratorios», en *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*. 6 tomos/Lur Argitaletxea, pp. 3-28.
- (2005). «La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Un estudio generacional», en Arregi y Dávila (eds.) *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia*. Leioa: UPV-EHU, pp. 123-166.
- (2006). Cambios generacionales en los procesos de formación familiar: la fecundidad de las generaciones de mujeres y hombres a lo largo del siglo XX. *Vasconia*. 35, 2006, 301-332.
- (2010a). Auñamendi Entziklopediarekin kolaborazioa: *Evolución demográfica de Euskal Herria: de la Guerra Civil al final del siglo XX* sarrera <http://www.euskomedia.org/aunamendi/153732?q=Evoluci%F3n+demogr%E1fica+de+Euskal+Herria%3A+de+la+Guerra+Civil+al+final+del+siglo+XX+&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>
- (2010b). Auñamendi Entziklopediarekin kolaborazioa: *Envejecimiento demográfico* sarrera <http://www.euskomedia.org/aunamendi/153731?q=Envejecimiento+demogr%E1fico&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>

BIBLIOGRAFIA

- AIERDI, X. (2011). «Inmigrazioa Euskal Herrian». *Gaindegia Txostena 2010*. Donostia: Gaindegia. 41-48.
- ALUSTIZA, A. (2009). Longevidad, discapacidad y dependencia en la C.A. de Euskadi: una aproximación demográfica [Tesis Doctoral]. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- ARREGI, B.; LARRAÑAGA, I.; MARTÍN, U. (2007). «Demografía». *Eustaten 2006ko txostena*.
- BACIGALUPE, A.; MARTÍN, U. (2007). Desigualdades sociales en la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco: la clase social y el género como determinantes de la salud. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.
- CALVO, M.; ESNAOLA, S.; AUDICANA, C.; RUIZ, R.; ALDASORO, E.; MONTOYA, I.; IBÁÑEZ, B. (2009). Distribución geográfica de la esperanza de vida por zonas básicas de salud en el País Vasco (proyecto Medea). Comunicación presentada en la XXVII Reunión de la Sociedad Española de Epidemiología. Zaragoza octubre de 2009.
- COURTENAY, WH. (2000). Constructions of masculinity and their influence on men's well-being: a theory of gender and health. *Social Science and Medicine*. 50(10): 1385-1401.
- OSASUN SAILA (2005). Desigualdades sociales en la mortalidad: Mortalidad y posición socioeconómica en la C.A. de Euskadi, 1996-2001. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ESNAOLA, S.; MONTOYA, I.; CALVO, M.; ALDASORO, E.; AUDICANA, C.; RUIZ, R.; IBÁÑEZ, B. Atlas de mortalidad en áreas pequeñas de la C.A. de Euskadi (1996-2003). Vitoria-Gasteiz: Osasun eta Kontsumo Saila, 2010.
- ESNAOLA, S.; ALDASORO, E.; RUIZ, R.; AUDICANA, C.; PÉREZ, Y.; CALVO, M. (2006). «Desigualdades socioeconómicas en la mortalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco». *Gaceta Sanitaria*, 20(1): 16-24.
- EUSTAT (2008). Panorama Demográfico 2008. Informe. EUSTAT. Vitoria-Gasteiz.
- (2010). Euskadi en la UE-27. 27 Indicadores básicos para conocer la situación de nuestro país en la Unión Europea. EUSTAT. Vitoria-Gasteiz
- IMAZ, E. (2006). «Haurra eduki ala ez: ugalketaren inguruko planteamenduak, desirak eta kontraesanak», ALONSO-ARBIOL (koord.) *Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 95-105
- LUXÁN, M. (2004). «Evolución demográfica y movimientos migratorios», in *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos*. 6 tomo/Lur Argitaletxea, 3-28. orr.
- (2005). «La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Un estudio generacional», in Arregi y Dávila (eds.) *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia*. Leioa: UPV-EHU, 123-166. orr.
- (2006). Cambios generacionales en los procesos de formación familiar: la fecundidad de las generaciones de mujeres y hombres a lo largo del siglo XX. *Vasconia*. 35, 2006, 301-332
- (2010a). Auñamendi Entziklopediarekin kolaborazioa: *Evolución demográfica de Euskal Herria: de la Guerra Civil al final del siglo XX* sarrera <http://www.euskomedia.org/aunamendi/153732?q=Evoluci%F3n+demogr%E1fica+de+Euskal+Herria%3A+de+la+Guerra+Civil+al+final+del+siglo+XX+&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>
- (2010b). Auñamendi Entziklopediarekin kolaborazioa: *Envejecimiento demográfico* sarrera <http://www.euskomedia.org/aunamendi/153731?q=Envejecimiento+demogr%E1fico&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi&numreg=1&start=0>

- LUXÁN, M.; MARTÍN, U. (2011). «Zertan datza zahartze demografikoa?». Gaindegia.<http://www.gaindegia.org/eu/azterketa/Zahartze-demografikoa-Euskal-Herrian>
- MACINNES, J.; PÉREZ DÍAZ, J. (2008). «La tercera revolución de la modernidad: la reproductiva» *Reis: Revista española de investigaciones sociológicas* (122): 89-118.
- MARTÍN, U. (2011). Salud y desigualdades sociales en salud en la C.A del País Vasco en el cambio de siglo: una visión desde las esperanzas de salud [Tesis Doctoral]. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- MARTÍN, U.; GARCÍA, I.; LUXÁN, M. (2011). «Comportamiento reproductivo de las personas extranjeras. Un análisis para la Comunidad Autónoma del País Vasco». En: MORENO, G.; AIERDI, X. Anuario de la inmigración en el País Vasco 2010. Ikuspegi@k-Observatorios de Asuntos Sociales.
- PÉREZ DÍAZ, J. (2010). «El envejecimiento de la población española». *Investigación y Ciencia* (410): 34-42.
- TABET, P. (1985). «Fertilité naturelle, reproduction forcée». N. C. Mathieu (comp.) *L'arrasoinnement des femmes. Essais en anthropologie des sexes*. París : Éditions de l'École des Hautes Études en Sciences Sociales, 61-146.
- LUXÁN, M.; MARTÍN, U. (2011). «Zertan datza zahartze demografikoa?». Gaindegia.<http://www.gaindegia.org/eu/azterketa/Zahartze-demografikoa-Euskal-Herrian>
- MACINNES, J.; PÉREZ DÍAZ, J. (2008). «La tercera revolución de la modernidad: la reproductiva» *Reis: Revista española de investigaciones sociológicas* (122): 89-118.
- MARTÍN, U. (2011). Salud y desigualdades sociales en salud en la C.A del País Vasco en el cambio de siglo: una visión desde las esperanzas de salud [Tesis Doctoral]. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARTÍN, U.; GARCÍA, I.; LUXÁN, M. (2011). «Comportamiento reproductivo de las personas extranjeras. Un análisis para la Comunidad Autónoma del País Vasco»: MORENO, G.; AIERDI, X. Anuario de la inmigración en el País Vasco 2010. Ikuspegi@k-Observatorios de Asuntos Sociales.
- PÉREZ DÍAZ, J. (2010). «El envejecimiento de la población española». *Investigación y Ciencia* (410): 34-42.
- TABET, P. (1985). «Fertilité naturelle, reproduction forcée». N. C. Mathieu (comp.) *L'arrasoinnement des femmes. Essais en anthropologie des sexes*. Paris : Éditions de l'École des Hautes Études en Sciences Sociales, 61-146.